

Giza irudiaren marrazkia: heldutasun-adierazleen datu normatiboak Euskal Autonomia Erkidegoan

**Soledad Cruz Sáez, Carmen Maganto Mateo (EHUko irakasleak)
Gorka Pérez Sayes (EHUko ikaslea)**

Ikerketa honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan giza irudiaren testaren heldutasun-adierazleen berrikuspena egitea da; eta, ondorioz, eguneratuta dauden datu normatiboak eskaintzea. Lagina ikastetxe publiko, pribatu eta ikastoletako 4-8 urte bitarteko 539 neska-mutilek (269 mutil eta 270 neska) osatzen dute. Koppitz (1974) testaren egileak eskaintako balorazio-irizpideak jarraituz egin da ebaluazioa. Heldutasun-adierazle batzuk, Koppitzek proposatutakoa baino lehenago lortzen direla adierazten dute emaitzek; beraz, ikerketa honetan baremo gaurkotuak aurkezten dira. Zenbait heldutasun-adierazletan neska-mutilen arteko desberdintasun esanguratsuen agerpenak sexuaren araberako zuzenketa-taula desberdinak mantentzera eramán gaitu.

The purpose of this research is to revise the Maturity Indicators of the Human Figure Drawing in the Basque country. A sample was made up of 539 children (269 boys and 270 girls), aged between 4 and 8 years. The participants came from private and state schools (public schools) and Basque-speaking schools (ikastolak). The assessment was carried out using Koppitz's Assessment criteria (1974). The results revealed that some Maturity Indicators are achieved at an earlier age than Koppitz's suggests. This has given rise to the updating of the data and criteria found in this present research. Besides, the statistically significant differences between girls and boys in some of the Maturity Indicators have led us to maintain independent correction tables for the two sexes.

1. Sarrera

Haurraren marrazkien inguruan lan egin duten autoreak bat datoz, marrazkiaren adierazpena haurraren maila intelektualaren edo heldutasun-mailaren garapenarekin erlazionatuta dagoela diotenean (Harris, 1980; Koppitz, 1974; Meli Dworetzki, 1979; Martínez eta Delgado, 1983; Yuste, 1974).

Autore tradizionalak haurren produkzio grafikoek adinaren arabera jasaten duten aldaketa-prozesua modu sistematikoan egiaztatu dute (Bernson, 1962; Harris, 1980; Koppitz, 1974; Lowenfeld eta Lambert, 1980; Lucart, 1974, 1984; Luquet, 1978; Widlöcher, 1971). Egin ziren lehenengo ikerketetan, xehetasunetan aberatsa den marrazkia gaitasun intelektual altua duen haurrari dagokiola ikusi zen. Beraz, giza irudiaren adierazpenaren inguruan egindako ikerketak objektu bat identifikagarri egiten duen “eskeman” eta eskema horri jartzen zaizkion “xehe-tasunetan” oinarritu dira (Aikman, Belter eta Finch, 1992; Caride eta Scafati, 1981; Harris, 1980; Koppitz, 1974). “Eskema+xehe-tasunak” sintesiak giza irudiaren irudikapen aberatsagoa edo pobregoa eman dezake, eta marrazkia egin duen haurraren funtzionamendu helduagoa edo heldugabeagoa adieraz dezake.

70 eta 80ko hamarkadetan asko aztertu zen gai hau, baina lehenengo ikerketa horien aurkikuntzak baieztatzen dituzten ondorengo ikerketa gutxi dago, Aikman-en taldearena izan ezik (1992). Azken 100 urteetan, bai Estatu Batuetan bai European, adimenaren ebaluaziorako marrazkiek izan dezaketen interesa sakonki aztertu izan da. Ondo dokumentatutako hamaika artikuluk eta froga estatistiko ugari garbi uzten dute haurren marrazkien zenbait ezaugarriren eta adimenaren alderdi garrantzitsuen arteko erlazioa (Coopersmith eta Sakai, 1981; Duborgel, 1981; Engelhart, 1980; Lukens, 1986).

Garapenean oinarrituz, eta ikuspuntu psikometrikotik abiatuz, subjektuen heldutasun intelektualaren ebaluazioa ikertu da, eta kalitate grafikoaren arabera, adimenaren kalifikazio edo indikatzaile bat lor daiteke (Caride eta Scafati, 1981; Escoriza, 1984; Harris, 1980; Yuste, 1974). Ondorioz, haurren marrazkien zuzenketa ebolutiborako irizpideak ezarri ahal izateko, beharrezkoa da jakitea zein den, adinaren arabera, xehetasun edo *item* ebolutiboen agerpen-maiztasuna.

Horri dagokionez, subjektuen garapen kognitiboaren adierazle gisa, tradizio handiena duen marrazki-froga Giza irudiaren marrazkia (GIM) da. Testaren egilea den Koppitzek 5-12 urte bitarteko haurren GIMa aztertu du, eta taula bidez azaldu ditu emaitzak. Halaber, puntuazio-sistemak diseinatu eta estandarizatu ditu, eta subjektuen heldutasun mentalari buruzko ondorioak atera ditu.

Adinaren araberako datu estandarizatuak lortzeko asmoz, Koppitzek marrazkia aberasten duten xehetasunak aztertu zituen. Xehetasun horiei heldutasun-*item* izena jarri zien, eta honela definitu zituen: heldutasun-*item*-a adin-maila baxuagoan kokatzen diren haurren GIMean gutxitan agertzen da, eta haurraren adina gorantz doan heinean, agerpen-maiztasuna ere handitzen joango da; hala, adin-maila zehatz bat duten haurren GIM gehienetako edo askotako ezaugarri erregularra bihurtzen den arte. Ondorioz, GIM baten *item* ebolutiboen agerpena

adinarekin eta haurren heldutasunarekin erlazionatzen da bereziki, eta ez bere gaitasun artistikoarekin, eskolako ikasketekin, emandako aginduekin edo marrazkia egiteko erabilitako tresnarekin.

Heldutasun-*item* ebolutiboei adin bakoitzean duten agerpen-maiztasunaren arabera, “espero direnak”, “arruntak”, “nahiko arruntak” eta “apartekoak” izenak eman zitzaizkien.

Lehenengo kategoriak, *espero direnak (items esperados)*, adin-maila zehatz bateko GIMen %86-100an agertzen diren *item* guztiak hartzen ditu. Haur normal gehienen GIMetan agertzen diren heinean, adin zehatz bateko haurren marrazkietan espero diren gutxienezko edo oinarritzko *item*-ek osatzen dute. Beraz, *item* hauetako bat ez agertzea, agertzea baino esanguratsuagozat hartzen da.

Bigarren kategorian, *arruntak (items comunes)*, GIMen %51-85ean ematen diren *item* guztiek osatzen dute. %16-50ean agertzen diren *item* guztiek hirugarren kategoriaren barruan sartzen dira eta *nahiko arruntak (items bastante comunes)* izena jasotzen dute.

Ostera, laugarren kategorian %15 arterainoko maiztasuna duten *item*ak daude. Koppitzek *apartekoak (items excepcionales)* izendatutako kategorian honetako *item* ebolutiboak, batazbestekoa baino altuagoa den heldutasuna duten haurren protokoloetan soilik agertzen direla hipotetizatu zuen.

Beraz, testa zuzentzeko garaian, adin bakoitzean *espero diren* heldutasun-*item* guztiak agertzen badira 5eko puntuazioa ematen da. Agertzen ez den *item* bakoitzeko, espero den 5eko puntuazio horri puntu bat kentzen zaio. Bestalde, marrazten duen *aparteko item* bakoitzeko puntu bat gehitzen zaio *espero diren item*-etan lortutako puntuazioari.

Adibidez, 7 urtekoetan espero diren 12 *item* badaude 5eko puntuazioa emango da. Bi *item* falta badira 3ko puntuazioa jasoko du haurrak (5-2=3). *Aparteko item* bat marraztuko balu, 3ko puntuazioari puntu bat batuko genioke, eta 4-ko azken puntuazioa lortuko luke. Ondoren, zentilen taulan begiratzen da *espero direnak* eta *aparteko item*-entzat autoreak berak ezarritako puntuazio-sisteman, eta adin bakoitzeko heldutasun mentalaren maila lortzen da.

Koppitzek eskainitako ikuspuntu teorikoa eta metodologia haurren marrazkien estandarizatorako erabilgarria da, baina gure ustez gaurkotu beharra du, testa egin zen urtea (1974) eta gizartean eman diren hezkuntza-aldaketak eta aldaketa sozialak kontuan hartzen baditugu. Aldaketa horiek direla medio, haurrek adin goiztiaragoetan heldutasun handiagoa dutela eta, bereziki, beren garapen kognitiboa grafikoki adierazteko gaitasun hobea dutela uste dugu.

Horregatik, ikerketa honen helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko 4-8 urte bitarteko haurren —adierazpen grafikoan garapen-aldaketa ugari izaten den garaia— marrazkien ebaluaziorako datu normatibo estandarizatuak ematea da.

2. Metodoa

2.1. Helburuak

1. Koppitzek aurkeztutako heldutasun-*item*-en datu normatiboak eta Euskal Autonomia Erkidegoko 5-8 urte bitarteko haurren datu normatiboak elkarren artean konparatzea.
2. Sexuaren arabera, heldutasun-*item*-en maiztasunean ezberdintasunak agertzen ote diren aztertzea.
3. Lortutako emaitzekin, Euskal Autonomia Erkidegorako taula normatiboak aurkeztea.

2.2. Subjektuak

Ikerketaren lagina, 4-8 urte bitarteko 539 haurrek osatzen dute, 269 mutilek (%49,9) eta 270 neskek (%50,1). Haurrek beren ikasketak Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan (%34,4), ikastetxe pribatuetan (%42,5) eta ikastoletan (%23,1) egiten dituzte. Sexuaren eta adinaren banaketa antzekoa da talde desberdinetan (ikus 1. taula).

1. taula. Lagineko adinaren arabeko mutil eta nesken ehunekoaren (%) eta maiztasunaren (M) datuak

ADINA N = 539	MUTILAK		NESKAK		GUZTIRA	
	M	%	M	%	M	%
4	47	17,45	58	21,50	105	19,48
5	53	19,770	49	18,14	102	18,92
6	61	22,67	56	20,65	117	21,70
7	46	17,10	53	19,71	99	18,34
8	62	23,05	54	20,00	116	21,56
GUZTIRA	269	49,90	270	50,10	539	100,00

2.3. Prozedura

Lagina osatzeko subjektuak zoriz aukeratu ziren. GIM testa ikastetxeetan eskola-orduetan aplikatu zen, leku-, denbora- eta motibazio-baldintza berdintsetan. Aldez aurretik, subjektuen gurasoei ikerketaren berri eman zitzairen, beren seme-alabei testa pasatzeko baimena eman zezaten. Urritasun sentsozial eta psikikoak zituzten subjektuak laginetik kanpo utzi ziren.

GIM testa 5-10 hurrez osatutako taldeetan aplikatu zen, eta honako agindua eman zitzaion: «Orrialde honetan pertsona oso bat marraz dezazun nahi dut. Marraztu nahi duzuna edozein motatako pertsona izan daiteke, baina beti pertsona osoa, eta ez karikatura edo makilez egindako irudia».

Marrazki bakoitza, Koppitzek (1974) bere zuzenketa-sisteman jasotzen dituen 30 heldutasun-adierazleen arabera zuzendu zen. Hala heldutasun-*adierazlea* agertzen bazen 1 puntuazioa ematen zitzaion, agertzen ez bazen 0 puntuazioa. Marrazki bakoitza trebatuta zeuden bi psikologok zuzendu zuten (epaileen arteko fidagarritasuna $r = .90$). Hasiera batean adin bakoitzari zegozkion *item* bakoitzaren maiztasunak jaso ziren. Ondoren, Koppitzen etiketa-sistema jarraituz, *item*-ak kategoriatan sailkatu ziren. Hala, *item* bat haurren %86k edo gehiagok marrazten bazuten *espero direnak* kategorian sartzen zen, %51-85ek irudikatu bazuten *arrunta* kategorian, %16-50ek egiten bazuten egokitutako kategoria *nahiko arrunta* izan zen eta haurren %15 edo gutxiagok marraztu bazuten *apartekoa* etiketapean sailkatu zen.

3. Emaitzak

3.1. GIMaren heldutasun-*item*-etan 4-8 urte bitarteko neska-mutiletan lortutako emaitzak

Item ebolutiboak Koppitzen (1974) argibideen arabera baloratu ziren, arroparekin erlazionatutako *item*-ak eta gorputzaren zatien arteko neurrien *item*-ak izan ezik. Ikerketa honetan egokiago ikusi zen arroparen *item*-ak multzokatu gabe analizatzeari, eta horren ordez marrazkiari jarri zitzaion janzki bakoitza kontuan hartzea, bereziki haur txikiaren kasuan agertu ziren balorazio-zailtasunak zirela eta.

Gorputzaren zatien arteko neurriei dagokienez, zuzenketa-irizpideak ez dira zehatzak eta ikertzaile arteko fidagarritasuna baxua izan zen; beraz, *item* hau ez zen ikerketa honetan kontuan hartu. Gure ustez, *item* hau argitzeko ikerketa berriak behar dira.

Halaber, Koppitzek *item arrunt* gisa izendatzen duen kategoriaren izendapena aldatu egin da, eta *nahiko ohikoak* izendatu ditugu, eta *item nahiko arruntak* kategoriaren ordez *item ez hain ohikoak* erabili da. Aldaketa horiek Koppitzek aurkeztutako etiketak nahasteak sor zitzaizkela uste izan dugulako egin dira. *Espero diren item*-ak eta *aparteko item*-ak izendapenak errespetatu egin dira, kategoria bakoitzean *item*-ak sartzeko autoreak ezarritako maiztasun-irizpideak bezalaxe.

2. taulan gure lagineko mutilek GIMaren *item* ebolutiboetan lortutako emaitzak eta Koppitzek lagin amerikar batekin lortutakoak adin desberdinetan bildu dira, emaitzetan agertutako bi laginen arteko desberdintasunak erakusteko asmoz.

2. taula. Giza irudiaren marrazkiaren *item* ebolutibo bakoitza burutzen duten mutilen ehunekoa (%) Koppitz (K) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) laginetan

ADINA	4		5		6		7		8	
LAGINA	EAE	K	EAE	K	EAE	K	EAE	K	EAE	
N = 269	47	128	53	131	61	134	46	138	62	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	
Burua	100	100	100	100	100	100	100	100	100	
Hankak	88	97	94	97	97	99	100	97	100	
Begiak	98	98	100	99	97	99	100	99	100	
Ahoa	81	92	98	97	95	97	100	95	100	
Sudurra	62	87	76	91	79	90	78	91	79	
Oinak	67	73	88	80	97	87	98	86	98	
Ilea	59	54	88	72	86	76	96	78	98	
Besoak	69	84	96	95	97	96	100	96	100	
Gorputza	74	89	94	97	100	98	100	99	100	
Begi-niniak	17	11	20	22	24	38	45	38	49	
Eskuak	29	33	54	42	71	50	80	55	94	
Belarriak	36	25	34	33	29	42	35	40	35	
Besoak Behera	12	21	20	35	45	57	59	71	60	
Hatzak	29	61	64	60	67	76	77	72	75	
Hankak 2D*	9	37	64	70	90	84	98	93	98	
5 hatzak	2	13	15	26	15	38	37	40	38	
Lepoa	17	28	52	27	65	55	65	60	70	
Besoak 2D	12	48	68	62	93	86	100	96	100	
Ukondoak	0	1	2	6	0	4	4	11	3	
Belauna	0	0	2	3	3	1	4	4	3	
Sudurzuloak	0	2	4	5	5	10	6	15	6	
Bekainak	5	21	6	28	7	37	28	37	24	
Bi ezpainak	0	2	0	2	2	6	2	8	5	
Besoak S.L.**	2	3	10	14	29	24	37	40	44	
Oinak 2D	43	8	74	22	90	43	96	50	94	
Profila	0	1	4	3	9	15	11	25	11	
Janzkia										
0-1 <i>item</i>	100	90	78	70	55	46	28	37	45	
2- <i>item</i>	0		12		17		33		25	
3- <i>item</i>	0		6		17		13		17	
4- <i>item</i>	0		4		7		22		10	
5-edo gehiago	0		0		4		4		3	

*2D=Bi dimentsiotan; **Besoak sorbaldari lotuta

3.1.1. Mutilak: 4 urte

Koppitzek estandarizazioa ez du 5 urtera arte proposatzen, beraz ez dago konparaketa-laginik. EAEn lortutako emaitzak ikusita, ondoriozta dezakegu giza irudiaren oinarriko marrakia zapaburu baten eskeman oinarritzen dela, hau da, *espero dena* buruaren zirkulua eta bi hankak marraztea da. Buruan bi zirkulu jartzen dituzte begiak adierazi asmoz. Hiru *item* hauek subjektuen ia %100ek burutzen ditu. *Nahiko ohikoa* da ahoa, gorputza eta besoak jartzea, eta 5 urterekin *espero diren item*-ak izango dira; beraz, 4 eta 5 urteko haurrak bereizteko xehetasunak adierazten dituzte ezaugarri horiek.

Adin honetan *item ez hain ohikoak* ondokoak dira: begi-niniak, belarriak, hatzak, eskuak, oinak bi dimentsiotan eta lepoa. *Apartekoa* da 4 urterekin marrakia gainontzeko *item*-ekin osatzea, hots, besoak bi dimentsiotan, sorbaldari lotuta eta beheraka jarrita; bost hatzak, hankak bi dimentsiotan, ukondoak, belaunak, marrakia profitez irudikatzea, aurpegian sudurzuloak jartzea, bekainak eta bi ezpain marraztea edo bi janzki jartzea.

3.1.2. Mutilak: 5 urte

Adin honetako emaitzak aurrekoarekin konparatuta, giza irudia marraztean heldutasun-aldaketa garrantzitsuak gertatzen direla ondoriozta dezakegu. *Espero diren* indikatzaileak 3tik 8ra pasatzen dira; beraz, zapaburuaren marrakia giza irudi ezaguterraz baten eskema bihurtzen da. Bi zirkulu marrazten dira, batak burua eta besteak gorputza adierazteko. Buruan, begiak, ahoa eta ilea kokatzen dira. Batzuetan, buruaren eta gorputzaren elkargunetik bi beso azaltzen dira, beste batzuetan gorputzetik besoak eta hankak agertzen dira, eta azkenik oinak.

Subjektuen %50ek baino gehiagok 7 *item* gehiago marrazten dituzte, izan ere, *nahiko ohikoa* da adin horretan besoak bi dimentsiotan, hankak eta oinak irudikatzea, eta eskuak, hatzak, sudurra eta lepoa marraztea. Hala ere, *ez da hain ohikoa* begi-niniak edota belarriak marraztea, besoak beheraka kokatzea eta bost hatzak jartzea; eta *apartekoa* da ondoko 8 *item*-ak irudikatzea: besoak sorbaldari lotuta, ukondoak, belaunak, sudurzuloak, bekainak, bi ezpainak, marrakia profitez irudikatzea eta 3 janzki jartzea.

Koppitzen laginarekin konparatuta, bi ezberdintasun nagusi aurkitzen dira. Lehenengoa *espero diren item*-etan, izan ere lagin horretako subjektuek ez dute bi *item*, oinak eta ilea, irudikatzen. Ilea subjektu amerikarren %54k soilik marrazten du eta oinak %73k; aldiz, EAEn *espero diren item*-a, hots oinarriko, bihurtzen dira, bigarren taulan ikus daitekeen bezala.

Beste ezberdintasun bat, beren marrakia xehetasunez aberasten duten subjektuen ehunekoan datza. EAEn *item nahiko ohikoak* 6 dira; Koppitzen laginean, ordea, hatzak, oinak eta ilea agertzen dira soilik —arestian esan dugun bezala, gure erkidegoan azken bi horiek *espero diren item*-ak dira—. Azkenik, adin honetan *espero diren* edo oinarrikoak diren *item*-ei dago-kienez, Koppitzen laginean 9 eta EAEn 15 direla esan daiteke. *Aparteko item*-ei dagokienez, Koppitzek 10 *item* zenbatzen ditu, EAeko laginak, aldiz, 8 aurkezten ditu; euskal laginean aberastasun grafiko handiagoa dagoela adierazten du horrek.

3.1.3. Mutilak: 6 urte

6 urterekin, aurreko adinean jadanik arruntak ziren 3 *item* gehiago gehitzea espero da: besoak bi dimentsiotan, eta hankak eta oinak irudikatzea. Beraz, adin honetako ezaugarri ebolutibo espezifikoa hiru *item* horiek osatzen dute, eta horiek izan dira 5 urteko adina eta 6 urtekoa ezberdintzen dituztenak. Ostera, gainerako *item*-etan 4-5 urte bitartean baino aldaketa ebolutibo gutxiago dago 5-6 urte bitartean. Aurreko adinean mutilak giza irudia itxuratu nahian dabiltzala dirudi, eta 6 urtekoak aurretik erantsitako xehetasunak hobetzen saiatzen direla dirudi; jada marrazten dituzten gorputz-adarrei bi dimentsio emanez, esaterako.

Nahiko ohikoa izaten jarraitzen du, baina oraindik ez da espero adin honetako mutilek sudurra, lepoa, eskuak eta hatzak marraztea. *Ez da hain ohikoa* begi-niniak, belarriak, bost hatzak, besoak beheeraka eta sorbaldari lotuta marraztea. Azkenik, *apartekoa* da ukondoak, belaunak, sudurzuloak, bekainak, bi ezpainak eta 4 janzki-*item* marraztea edo giza irudia profitez irudikatzea.

Ameriketako lagina eta EAEkoa konparatuta, emaitzak modu honetan laburbil daitezke: Koppitzen laginarekin gertatzen dena aurreko adinean gertatzen denaren ildo beretik doa; hau da, amerikarrek EAEko laginean baino *espero diren item* gutxiago eransten dute; beraz, bi laginen arteko ezberdintasunak handitu egiten dira adin honetan.

Adibidez, Koppitzen laginean %86k maiztasun txikiagoak dituzte oinen eta ilearen *item*-etan —aurreko adinean EAEko laginean *espero direnak* ziren—, eta ez dituzte besoak, hankak eta oinak bi dimentsiotan marrazten. Ondorioz, *espero diren item*-ak EAEn 11 dira eta Koppitzen laginean 7. *Espero diren item* horietako batzuk lagin amerikarrean ez dira *nahiko ohikoak* izatera ere iristen. Marrazkiaren osotasuna ikerketa-objektu den gure laginean aberatsagoa da, 15 *item*, amerikar laginean, aldiz, 10. Beraz, marrazkia egitean ezberdintasunak biziki nabariak dira. *Apartekoak* diren *item*-etan, bi laginen arteko antzekotasun gehiago dago, 7 euskal laginean eta 8 amerikarrean, *item*-ak berdintsuak izanik.

3.1.4. Mutilak: 7 urte

Adin honetan *espero diren item*-ak aurreko adineko berdinak dira. Esan beharra dago, aurreko adinean *nahiko ohikoak* ziren sudur, lepo, hatz eta eskuez gain, mutilek marrazkiak aberastu egiten dituztela, begirada begi-ninien bidez irudikatzean eta besoak giza gorputzarentzat modu naturala den eran kokatzean, hau da, beheeraka. *Ez da hain ohikoa* belarriak, bost hatzak, bekainak eta besoak sorbaldari lotuta marraztea. *Apartekoa* da marrazkian ondoko xehetasunak agertzea: ukondoak, belaunak, sudurzuloak, bi ezpain eta 5 janzki edo gehiago.

Bi laginak konparatuta, zera esan daiteke: Koppitzen laginean, adin honetan, 9 *item* ebolutibo lortzen da, EAEko haurrek baino 2 gutxiago. *Espero diren item*-ak eta *item nahiko ohikoak* batuta, amerikarren laginak Euskal Herrikoak baino *item*-kopuru txikiagoa aurkezten du: 13, 17ren aurrean; beraz, lehen bezalaxe, marrazkiaren kalitate orokorra okerragoa da. Bi laginak berdindu egiten dira *aparteko* indikatzeileetan, *item* guztietan bat eginez.

3.1.5. Mutilak: 8 urte

Maiztasun handiagoko *item*-ak, hau da, *espero direnak* EAEko laginean 12 dira, Koppitzen laginean 10. Gure erkidegoan, eskuak, adin honetan sartzen den *item* ebolutibo espezifikoa da. Horrela, azken *item* honen zailtasun-mailak besoen irudikapenean honako garapena jarraitzen duela adierazten du: hasiera batean lerro huts bat besterik ez dira, gorputzaren edo buruaren eranskin gisa (5 urte), gero bi dimentsiotan eta gorputzetik ateratzen direla marrazten dira (6 urte), besoei ondoan hatzak ezartzen zaizkio (7 urte) eta hauek, azkenik, eskuen luzakin gisa irudikatzen dira (8 urte).

Espero diren 12 *item*-ez gain, subjektuen %50ek baino gehiagok ondoko 5 *item* hauek nahiko maiz marrazten dituzte: sudurra, hatzak, begi-niniak, lepoa eta besoak beheraka. Beraz, 17 dira gehien marrazten direnak, 12 *espero direnak* eta 5 *arruntak*; lagin amerikarrak, aldiz, 16 *item* jasotzen ditu, 10 *espero direnak* eta 6 *arruntak*. Ez dira hain ohikoak honako 5 *item* hauek: sorbaldari lotutako besoak, belarriak, bekainak eta 5 hatzak. Hala-ber, *apartekoei* dagokienez, Euskal Herriko mutilek aurreko adineko *item* berdinak mantentzen dituztela esan beharra dago: belaunak, ukondoak, sudurzuloak, bi ezpainak, profila eta 5 janzki edo gehiago.

Bi laginak konparatuta, 8 urterekin ikerketa-objektu den laginak, erreferentzia-laginak baino garapen ebolutibo hobea aurkezten duela ondoriozta daiteke; izan ere, *espero diren* eta *nahiko ohikoak* diren indikatzaile gehiago agertzen dituzte, eta, beraz, marrazkia aberastu egiten dute, edo osotasun handiagoz irudikatzen dute.

Ondoren, 3. taulan lagineko neskek lortutako datuak eta Koppitzen lagineko neskek aurkezten dituztenak adin desberdinetan zehar agertzen dira.

3. taula. Giza irudiaren marrazkiaren *item* ebolutibo bakoitza burutzen duten nesken ehunekoa (%) Koppitz (K) eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) laginetan

ADINA	4		5		6		7		8	
LAGINA	EAE	K	EAE	K	EAE	K	EAE	K	EAE	
N = 270	58	128	49	133	56	125	53	130	54	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	
Burua	100	100	100	100	100	100	100	100	100	
Hankak	88	97	87	93	91	99	98	94	100	
Begiak	100	100	100	100	100	100	100	100	100	
Ahoa	94	91	94	100	100	100	100	98	100	
Sudurra	82	90	83	95	74	92	75	92	93	
Oinak	86	75	87	89	87	94	98	90	98	
Ilea	71	85	87	91	96	94	96	97	100	
Besoak	82	91	90	98	98	99	98	100	100	
Gorputza	80	91	98	94	98	100	100	99	100	
Begi-niniak	22	19	31	34	40	51	51	59	74	
Eskuak	55	39	52	44	82	57	83	59	89	
Belarriak	31	29	23	19	18	18	21	16	23	
Besoak Behera	10	29	33	38	60	59	77	78	70	
Hatzak	37	59	71	68	74	71	69	65	78	
Hankak 2D*	22	46	69	67	89	86	94	86	96	
5 hatzak	4	18	21	24	29	38	28	44	46	
Lepoa	29	25	46	37	60	62	68	76	86	
Besoak 2D	31	52	83	77	98	91	96	96	100	
Ukondoak	0	0	2	7	2	5	0	5	2	
Belauna	0	2	2	2	2	1	0	3	3	
Sudurzuloak	2	6	2	14	7	20	7	21	12	
Bekainak	8	33	19	48	29	60	38	70	26	
Bi ezpainak	0	4	6	5	11	20	21	17	21	
Besoak S.L.**	0	0	10	11	24	27	36	33	40	
Oinak 2D	51	7	83	19	85	34	98	33	98	
Profila	0	1	4	7	14	11	14	8	5	
Janzkia										
0-1 <i>item</i>	96	70	60	52	33	35	23	27	16	
2- <i>item</i>	4		17		30		42		30	
3- <i>item</i>	0		15		25		24		26	
4- <i>item</i>	0		4		10		8		16	
5-edo gehiago	0		4		2		3		12	

*2D=Bi dimentsiotan; **Besoak sorbaldari lotuta

3.1.6. Neskak: 4 urte

Marrazkiaren oinarritzko eskema *espero diren 5 item*-ek osatzen dute: buruko zirkulua, non ahoa eta begiak kokatzen diren eta hankak oinekin. Ehuneko handi batek besoak, sudurra, ilea, eskuak eta gorputza ere marrazten ditu, hau da, *item* horiek *nahiko ohikoak* dira; beraz, nesken artean adin honetako marrazkiak ia giza irudiaren itxura hartzen du.

Hain ohikoak ez diren 8 item agertzen dira: lepoa, besoak, hankak eta oinak bi dimentsiotan, hatzak, belarriak eta begi-niniak. Beraz, marrazkia nahiko osoa da, eta adin honetako mutilena baino hobea. *Apartekoa* da ondokoak marraztea: besoak beheraka eta sorbaldari lotuta, 5 hatzak, ukondoak eta belauinak, sudurzuloak, bekainak eta bi ezpainak, profitez marraztea eta bi janzki irudikatzea.

3.1.7. Neskak: 5 urte

Giza irudiaren irudikapena 3 *item*-ekin aberasten da: gorputza, ilea eta besoak. *Item* horiek 4 urterekin maiztasun handiarekin agertzen dira eta 5 urterekin *espero direnak* bihurtzen dira. *Nahiko ohikoa* da laginaren erdian baino gehiagotan, besoak bi dimentsiotan, hankak eta oinak, eskuak eta hatzak eta sudurra marraztea. *Ez dira hain ohikoak* begi-niniak, belarriak, besoak beheraka, bost hatzak, lepoa eta bekainak. *Apartekoa* da 8 *item* hauek marraztea: sorbaldari lotutako besoak, ukondoak, belauinak, bi ezpainak, sudurzuloak, bekainak, profila eta 4 janzki.

Espero diren item-en kopurua amerikarren laginarekin konparatzen bada, diferentzia bat dago: 7 *item* 8ren aurrean. EAeko laginean *espero direnen* artean oinak eta ilea gehitzen zaizkio; amerikarrean, aldiz, *espero dena* sudurra da. *Aparteko item*-etan bi laginen arteko ezberdintasun bakarra oinak bi dimentsiotan *item*-ean agertzen da, izan ere Koppitzen nesken %7k marrazten dituzte eta Euskal Herriko laginean %83k; beraz, *nahiko ohikoa* kategoriaren barruan sartzen den *item*-a da.

3.1.8. Neskak: 6 urte

Aurreko adinarekin konparatuta, 6 urtekoen laginean 3 heldutasun-*item* gehiago dago, 8 *item* 5 urterekin eta 11 *item* 6 urterekin, *espero diren item*-en artean bi dimentsioen irudikapena gehituz bai gorputz, bai beso, bai hanka eta bai oinentzat. Gainera, honako xehetasunak *nahiko maiz* (%50 baino gehiago) marrazten dira: sudurra, lepoa, besoak beheraka, eskuak eta hatzak. *Ez da hain ohikoa* (subjektuen %15-49 bitartean) begi-niniak, bekainak, belarriak, bost hatzak eta besoak sorbaldari lotuta marraztea. *Apartekoa* da ondoko 6 *item* hauek marraztea: ukondoak eta belauinak, sudurzuloak, bi ezpainak, profila eta 4 janzki edo gehiago.

Bi laginak konparatuta, adin honetan *item* ebolutibo gutxiago marrazteaz gain (besoak, hankak eta oinak bi dimentsiotan) Amerikako lagineko neskek *nahiko ohikoak* diren *item* gutxiago egiten dituztela ikusten da. Bi laginen artean, *nahiko ohikoak* diren eta *ez hain ohikoak* diren *item*-en arteko diferentziak EAeko neska gehienek marrazkien aberastasun handiagoa adierazten du. Azkenik, *aparteko item*-ei dagokienez, 7 dira Koppitzen laginean eta 6 EAekoan; ezberdintasun

bakarra besoak sorbaldari lotuta *item*-ean ikusten da, Euskal herriko laginean ez *hain ohikoak* kategorian agertzen baita.

3.1.9. Neskak: 7 urte

EAEEn ia ez dago aldaketarik 6 eta 7 urtekoen marrazkien artean. Aurreko adineko *item* ebolutibo berdinak mantentzen dira, eta *nahiko ohikoa* den *item* bakarra gehitzen da, begi-niniak, alegia. Ez da berdin gertatzen Koppitzen laginean, non espero diren kategoriari bi *item* gehitzen baitzaizkio, hankak eta besoak bi dimentsiotan, alegia. Neska amerikarren ehuneko handi batentzat, *nahiko ohikoak* dira lepoa eta besoak beheraka; azken *item* hori 6 urterekin Ameriketako lagineko neska gutxi egiten zuten. Beraz, Koppitzen laginean aldaketa ebolutibo handiko adina da; ez ordea, Euskal Herriko laginean, non aldaketa hauek 5 eta 6 urte bitartean gertatzen diren, hau da, urte bat lehenago. Gainera, *ez dira hain ohikoak* euskal laginean, bekainen, bi ezpainen, belarrien, bost hatzen eta sorbaldari lotutako besoan irudikapenak. *Apartekoa* da ukondoak eta belaunak, sudurzuloak, 4 janzki edo gehiago eta profila marraztea.

Konparatuz gero, esan dezakegu, 6 urterekin gertatzen zen bezala, Amerikako laginean sudurra *espero diren item*-en barruan dagoela, eta oinak bi dimentsiotan guk aztertutako laginean. Neska amerikarrek 6 urterekin *nahiko ohikoak* ziren 3 *item* marrazten dituzte, eta Euskal Herriko neskek adin honetan *item* berri bakar bat gehitzen dute, begi-niniak alegia. Honen bidez ondoriozta daiteke, 5 eta 6 urte bitartean aldaketa ebolutibo handiagoa dagoela EAEEn; Koppitzen laginean, aldiz, aldaketa hori 6 eta 7 urte bitartean izaten da. *Aparteko item*-ei dagokienez, agertzen den ezberdintasun bakarra honakoa da: EAEko neskek maiztasun gutxiagoz marrazten dituzte sudurzuloak, eta amerikarrek bi ezpain marrazten dituzte maiztasun gutxiagoz.

3.1.10. Neskak: 8 urte

Emaitzetan, aldaketa garrantzitsua nabari da euskal laginean, izan ere, 7 eta 8 urte bitartean, *espero diren item*-ak 11 izatetik 14 izatera pasatzen dira: sudurra, eskuak eta lepoa gehitzen dira. Marrazkia, begiak, ahoa, sudurra eta ilea duen buru batek, eta gorputz batek osatzen dute, eta gorputz horretatik besoak eskuekin, eta hankak eta oinak bi dimentsiotan ateratzen dira, denak *espero diren item*-ak. Adin honetan, gorputzaren eta buruaren artean lepoa kokatzen da. Beraz, giza irudiaren marrazki osatua egiten dela esan dezakegu. Besoak beheraka, hatzak eta begi-niniak bezalako xehetasunak *nahiko ohikoak* dira adin honetan. *Ez da hain ohikoa* besoak sorbaldari lotuta, eskuetako hatz-kopuru zehatza, belarriak, bekainak, sudurzuloak eta bi ezpainak irudikatzea. *Apartekoa* da ondoko xehetasunak marraztea: ukondoak eta belaunak, profila eta 5 janzki edo gehiago.

Bi laginak konparatuta ikus daiteke EAEko laginean *espero diren 3 item* gehitzen direla; beraz, adin honetan marrazkia ebolutiboki ez da aurreko adinekoa bezalakoa, Amerikako laginean, berriz, 7 urteko adinari dagozkion *item* berdinak mantentzen dira. *Aparteko item*-etan bi laginak bat datoz, janzki-kopuruan izan ezik. Berriz ere marrazkia EAEen xehetasunetan aberatsagoa da; izan ere, neska gehiagok xehetasun gehiago irudikatzen dituzte, giza irudiaren marrazkia biribilduz.

3.2. Nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak *item* ebolutiboetan

GIMa heldutasun-froga gisa erabiltzeak, Koppitzek proposatzen duen moduan kategoriak ezartzeko maiztasun-irizpide bat jarraituz, nesken eta mutilentzat baremo ezberdinak sortzea ezinbesteko bihurtzen du; izan ere, zaila da maiztasun berdinak lortzea *espero diren* eta *apartekoak diren item* guztietan adin ezberdinetan. Baina gure interesa lanaren zati honetan subjektuengan aurkitutako ezberdintasunak zein puntutaraino ziren esanguratsuak jakitea izan zen; horretarako chi karratu analisia burutu genuen. Nesken eta mutilen artean, adin bakoitzean aurkitu diren ezberdintasun esanguratsuak aurkezten dira 4. taulan.

4 urterekin agertzen da ezberdintasun gehien bi sexuen artean. Neskekin konparatuta, mutilen kopuru esanguratsuki txikiago batek honako *item*-ak marrazten dituzte: oinak, sudurra, eskuak, besoak bi dimentsiotan, ahoa, ilea, bekainak eta ezpainak. 5 urteko adinean ez dugu ezberdintasun esanguratsurik ikusi nesken eta mutilen GIMean *item* ebolutibo ezberdinen agerpenean. 6 urterekin, desberdintasun estatistikoki esanguratsuak soilik belarriak *item*-ean agertzen dira: kasu honetan, mutilek neskek baino maizago marrazten dituzte. 7 urterekin bi sexuen arteko ezberdintasun esanguratsuak 3 *item*-etan aurkitzen dira: besoak beheraka, hatzak eta bi ezpainak. Besoak beheraka eta bi ezpainak nesketan mutiletan baino maiztasun esanguratsuki handiagoan aurkitzen dira; hatzak *item*-a, aldiz, mutilen kopuru esanguratsu handiagoak marrazten du. Azkenik, 8 urterekin desberdintasun esanguratsuak aurkitzen ditugu nesken alde, ondoko *item*-etan: sudurra, begi-niniak eta bi ezpainak.

Datu hauetatik ondoriozta daiteke, GIMeko *item* ezberdinak marrazten dituzten nesken eta mutilen kopuruetan desberdintasunak agertu arren, bere osotasunean, heldutasun-adierazleak 30 direla kontuan hartuta, ez direla nahiko nabariak. Ezberdintasun esanguratsuak lortzen diren *item* gutxietan ere, oro har, esan genezake neska gehiago direla heldutasun-*item* zehatz horiek marrazten dituztenak.

**4. taula. Adin bakoitzean sexuaren araberako diferentzia esanguratsuak
Giza irudiaren marrazkiaren *item*-etan**

ADINA	ITEM-A	TALDEA	SUBJEKTU- -KOPURUA	%	KONTINGENTZIA- -KOEFIKIENTEA	
4 URTE	OINAK	MUTILAK	28	67	.227	p < 0,05
		NESKAK	44	86		
	SUDURRA	MUTILAK	26	62	.223	p < 0,05
		NESKAK	42	82		
	ESKUAK	MUTILAK	12	30	.255	p < 0,01
		NESKAK	25	55		
	BESOAK 2D.	MUTILAK	5	12	.225	p < 0,05
		NESKAK	16	31		
	AHOA	MUTILAK	34	81	.198	p < 0,05
		NESKAK	48	94		
	ILEA	MUTILAK	44	76	.282	p < 0,001
		NESKAK	53	96		
	BEKAINAK	MUTILAK	4	7	.279	p < 0,01
		NESKAK	16	29		
2 EZPAIN	MUTILAK	1	2	.187	p < 0,05	
	NESKAK	6	11			
6 URTE	BELARRIAK	MUTILAK	17	29	.198	p < 0,05
		NESKAK	7	13		
7 URTE	BESOAK BEHERAKA	MUTILAK	27	59	.196	p < 0,05
		NESKAK	41	77		
	HATZAK	MUTILAK	40	87	.201	p < 0,05
		NESKAK	37	69		
	2 EZPAINAK	MUTILAK	1	2	.273	p < 0,01
		NESKAK	11	21		
8 URTE	SUDURRA	MUTILAK	50	79	.189	p < 0,05
		NESKAK	53	93		
	BEGI-NINIAK	MUTILAK	31	49	.243	p < 0,01
		NESKAK	42	74		
	2 EZPAINAK	MUTILAK	3	5	.239	p < 0,01
		NESKAK	12	21		

3.3. Giza irudiaren marrazkiaren heldutasun-*item*-en datu normatiboak EAEko neska-mutilentzat

5. eta 6. tauletan ezarri diren kategoria bakoitzean kategoria hori osatzen duten *item*-ak aurkezten dira, *espero direnak*, *nahiko ohikoak*, *ez hain ohikoak* eta *apartekoak*, aztertutako laginean jasotako emaitzen arabera. Koppitzen ustez, *espero diren* eta *apartekoak diren item*-ak GIMa baloratzeko oinarrizkoak dira, haurren heldutasun mentalaren mailari buruzko informazioa jasotzeko aukera eskaintzen baitute. Gogora dezagun proposatzen duena: 5 puntuko konstante bati puntu bat kentzen zaio haurrak egiten ez duen *espero den item* bakoitzarengatik, eta puntu bat batzen zaio marrazkiak agertzen duen *aparteko item* bakoitzarengatik.

Adibidez, mutil edo neska batek bere adinerako *espero diren item* guztiak jartzen baditu, eta *apartekoak* diren *item*-ik jartzen ez badu, 5eko puntuazioa lortuko du; baina *espero diren item* guztiak marrazten baditu bat izan ezik, eta *aparteko item*-ik jartzen ez badu, 4ko puntuazioa jasoko du; eta *espero diren item* guztiak eta *aparteko item* bat marrazten badu, 6ko puntuazioa izango du.

Testa osatzen duten 29 *item*-en zuzenketa-irizpideak eta lortutako puntuazioen interpretazioa ikusteko, Koppitzen liburuko (1974) A eta C eranskinetara jo behar da.

**5. taula. Espero direnak, nahiko ohikoak, ez hain ohikoak eta aparteko *item*-ak
4-8 urte bitarteko mutiletan**

	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte
Espero direnak (%86-%100)	Burua Hankak Begiak	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Hankak 2D Besoak 2D Oinak 2D	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Hankak 2D Besoak 2D Oinak 2D	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Hankak 2D Besoak 2D Oinak 2D Eskuak
Nahikoa ohikoak (%51-%85)	Ahoa Sudurra Oinak Ilea Besoak Gorputza	Sudurra Lepoa Hatzak Eskuak Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D	Sudurra Lepoa Hatzak Eskuak	Sudurra Lepoa Hatzak Eskuak Begi-niniak Besoak beheraka	Sudurra Lepoa Hatzak Eskuak Besoak beheraka
Ez hain ohikoak (%16-%50)	Lepoa Hatzak Begi-niniak Eskuak Belarriak Oinak 2D	Begi-niniak Belarriak Besoak beheraka 5 hatzak	Begi-niniak Belarriak Besoak beheraka Besoak S.L 5 hatzak	Belarriak Besoak S.L Bekainak 5 hatzak	Belarriak Besoak S.L Bekainak 5 hatzak
Apartekoak (0-%15)	5 hatzak Besoak beh. Besoak 2D Oinak 2D Bekainak Besoak S.L Belaunak Ukondoak Sudurzuloak 2 ezpainak Profila Janzkiak: 2 <i>item</i>	Belaunak Ukondoak Sudurzuloak Besoak S.L Bekainak 2 ezpainak Profila Janzkiak: 3 <i>item</i>	Belaunak Ukondoak Sudurzuloak Bekainak 2 ezpainak Profila Janzkiak: 4 <i>item</i>	Belaunak Ukondoak Sudurzuloak 2 ezpainak Profila Janzkiak: 5 <i>item</i>	Belaunak Ukondoak Sudurzuloak 2 ezpainak Profila Janzkiak: 5 <i>item</i>

**6. taula. Espero direnak, nahiko ohikoak, ez hain ohikoak eta aparteko *item*-ak
4-8 urte bitarteko nesketan**

	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte
Espero direnak (%86-%100)	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D	Burua Hankak Begiak Ahoa Oinak Ilea Besoak Gorputza Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D Sudurra Lepoa Eskuak
Nahikoa ohikoak (%51-%85)	Sudurra Ilea Besoak Gorputza Eskuak	Sudurra Eskuak Hatzak Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D	Sudurra Eskuak Besoak beheraka Hatzak Lepoa	Sudurra Eskuak Besoak beheraka Hatzak Lepoa Begi-niniak	Besoak beheraka Begi-niniak Hatzak
Ez hain ohikoak (%16-%50)	Begi-niniak Belarriak Hatzak Lepoa Besoak 2D Hankak 2D Oinak 2D	Begi-niniak Besoak beheraka Lepoa Belarriak 5 hatzak Bekainak	Begi-niniak Belarriak 5 hatzak Bekainak Besoak S.L	Belarriak 5 hatzak Bekainak Besoak S.L 2 ezpainak	Belarriak 5 hatzak Bekainak Besoak S.L 2 ezpainak Sudurzuloak
Apartekoak (0-%15)	Besoak beheraka 5 hatzak Bekainak Besoak S.L Sudurzuloak Ukondoak Belaunak Profila Janzkiak: 2 <i>item</i>	2 ezpainak Besoak S.L Sudurzuloak Ukondoak Belaunak Profila Janzkiak: 4 <i>item</i>	2 ezpainak Sudurzuloak Ukondoak Belaunak Profila Janzkiak: 4 <i>item</i>	Sudurzuloak Ukondoak Belaunak Profila Janzkiak: 4 <i>item</i>	Ukondoak Belaunak Profila Janzkiak: 5 <i>item</i>

4. Ondorioak

Aurkeztutako emaitzek, eta jatorrizko (Koppitz) laginen eta aztertutako (EAEko) laginen artean aurkitutako ezberdintasunek Euskal Herriko populazioan GIMaren baremoak eguneratzea justifikatzen dute; bereziki 5-12 urte bitarteko haurren heldutasun mentalaren maila neurtzeko tresna gisa *screening* froga erabiltzen dela kontuan hartzen badugu.

Neskentzat eta mutilentzat baremo ezberdinak mantentzea ez da justifikatzen bien artean ezberdintasun esanguratsuak daudelako, baizik eta autoreak diseinatutako kategorien ezarpen-metodoak baldintzatzen duelako; gogora dezagun, kategorien maiztasunaren irizpidea erreferentziazat hartzen dela, eta horretan oinarrituz, subjektuaren heldutasun mentalaren indize adierazlea lortzen dela. Baremo bakarra erabiliko balitz mutilentzat eta neskentzat, neskek *espero diren item* gehiago marrazten dutenez eta *aparteko* gutxiago, mutilek heldutasun-maila baxuagoa lor zezaketela espero zitekeen.

Heldutasun *item*-ei dagokienez, honakoa ondoriozta daiteke:

Burua, hankak eta begiak: 4 urteko nesken eta mutilen marrazkietan agertzen dira. Adin horretako neskek ahoa eta oinak marraztea ere espero da; baina, azken *item* horiek 5 urteko mutiletan bihurtzen dira espero diren *item*.

Ilea, besoak eta gorputza: Bai neskek eta bai mutilek bost urterekin marrazten dituzte espero den maiztasunarekin. 5 urtetik aurrera ez dira garapenaren adierazle izango.

Sudurra eta belarriak: sudurra *item* nahiko ohikoa da, neska eta mutilen %75ek baino gehiagok marrazten baitu; baina ez du izaera ebolutiborik, antzeko ehunekoan mantentzen baita 8 urtera arte nesken kasuan. Belarriak, bai neska eta bai mutiletan, adin guztietan, %50eko portzentajea baino gutxiagoko *item*-a da.

Hankak, besoak eta oinak bi dimentsiotan: heldutasun-*item* garbiak dira, agerpen-maiztasuna 6 urtera arte progresiboki handitzen baitoa; eta orduan *espero den* kategoriako *item* bihurtuko dira.

Eskuak eta hatzak: pixkanaka, urteekin batera, maiztasun handiagoz marrazten diren *item*-ak izan arren, eskuak ez dira *espero den item* bihurtzen 8 urtera arte, bi sexuetan; hala ere, hatzak *nahiko ohikoak* kategorian mantentzen dira baita adin horretan ere.

Besoak beheeraka eta besoak sorbaldari lotuta: besoak beheeraka *item*-a kategoria aldatzen doa, 4 urterekin *apartekoa* izatetik *nahiko ohikoa* bihurtu arte 8 urterekin. Garapen txikiagoa ikusten da besoak sorbaldari lotuta *item*-ean, *ez hain ohikoak* kategorian aurkitzen baita.

Ukondoak, belaunak, profila, 4 janzi edo gehiago: bai neska bai mutiletan 4-8 urte bitartean *item* hauek *apartekoak* kategorian daude.

Begi-niniak: *Ez hain ohikoa* da 7 urtera arte, non ohikoago bihurtzen den.

Bekainak: *aparteko item*-a 4 urterekin bi sexuentzat, eta 5 urterekin mutilentzat.

Adin horretatik aurrera *ez hain ohiko* bihurtzen da.

Lepoa: *item ez hain ohikoa* bi sexuetan 4 urterekin, eta neskentzat 5 urterekin ere bai; ondoren, *nahiko ohikoa* kategoriako *item* bihurtzen da.

Bost hatzak: *aparteko item*-a 4 urterekin bi sexuetan; 5 urtetik aurrera *ez hain ohikoa* kategoria geratzen da.

Bi ezpainak eta sudurzuloak: mutilen artean aztertutako adin guztietan *apartekoak* dira, eta nesketan 7 urtera arte bi ezpainei dagokiena eta 8 urtera arte sudurzuloei dagokiena.

Bibliografia

- Aikman, K.; Belter, R. eta Finch, A. (1992): "Human Figure Drawings: validity in assessing intellectual level and academic achievement", *Journal of Clinical Psychology* **48**, 114-120.
- Bernson, M. (1962): *Del garabato al dibujo*, Buenos Aires, Kapelusz.
- Caride, M. eta Scafati, A. (1981): *Revisión crítica de los ítems del Test de la Figura Humana de Koppitz*, Buenos Aires, Eudeba.
- Coopersmith, S. eta Sakai, A. (1968): "Figure drawings as expression of self esteem", *Journal of Projective Techniques* **32**, 29-35.
- Duborgel, B. (1981): *El dibujo en el niño*, Barcelona, Paidós.
- Engelhart, D. (1980): "Dessin et personnalité chez l'enfant: études a partir d'une epreuve multiple de dessins", *Monographies françaises de psychologie* **52**, 86-95.
- Eno, L.; Elliot, C. eta Woehlke, P. (1981): "Koppitz emotional indicators in the Human-figure drawings of children with learning problems", *Journal of special education* **4**, 459-470.
- Escoriza, J. (1984): *Evolución del dibujo infantil de 2 a 6 años*, Barcelona, Promoción Publicaciones Universitarias.
- Harris, D. (1980): *Children's drawing as a measure of intellectual maturity*, Londres, Hartcourt.
- Koppitz, M. E. (1974): *El dibujo de la figura humana en niños*, México, Guadalupe.
- Lowenfeld, V. eta Lambert B. (1980): *Desarrollo de la capacidad creadora*, Kapelusz, Buenos Aires.
- Luçart, G. (1984): *Pintar, dibujar, escribir, pensar. El grafismo en preescolar*, Cincel-Kapelusz, Madril.
- Luçart, L. (1974): "Genèse des représentations Spatiales: La connaissance sensible des propriétés des formes par l'activité graphique", *Psychologie Scolaire* **12**, 31-53.
- Lukens, H. (1986). "A Study of childrens Drawings in the Early Years", *Pedagogie Semanaire* **4**, 79-89.
- Luquet, G. H. (1978): *El dibujo infantil*, Médico Técnica, Bartzelona.
- Martínez, E. eta Delgado, J. (1983): *El origen de la expresión en niños de 3 a 6 años*, Cincel, Madril.
- Meli Dworetzki, G. (1979): *El dibujo de la figura humana*, Oikos Tau, Bartzelona.
- Widlócher, D. (1971): *Los dibujos de los niños*, Herder, Bartzelona.
- Yuste, C. (1974): "La inteligencia infantil a través del dibujo", *Educación* **30**, 54-61.